



9. Funtsezko jarduerak

9.1. Gure esku

Produktuen **diseinua** gure esku egongo da, eta horretarako gure **ordenagailuak eta papera** izango dira gehienbat erabiliko ditugun materialak, beste material batzuen artean.

Horrez gain, produktu hauen **salmenta dibertsifikatua** egongo da. Alde batetik, **Petite** liburudendan, **Folder** paperdendan, **Goya** paperdendan eta **El Corte Inglés**eko denda desberdinetan **stand**ak jarriko ditugu. Bestetik, **gure biltegian bertan** eros dezakete bezeroek ReStudy produktuak. Azkenik, **gure webgunearen** bitartez ere eskura ditzakete erosleek gure produktuak.

9.2. Beste enpresa baten menpe

Gure enpresaren beste **alderdi batzuk, beste enpresa batzuen menpe** egongo dira, hala nola, ekoizpena eta bidalketak.

Produktuen **ekoizpena Smurfit Kappa Nervión** eta **Ecoembes** enpresen esku egongo da. **Smurfitek paperez eta kartoiz egindako produktuak** ekoiztuko ditu, eta **Ecombese** plastikoz egindakoak.

Azkenik, produktuak **Correos bidez bidaliko** ditugu. Correos arduratuko da produktuak bezeroei bidaltzen, etxeetara zein bilketa puntuetara.

Gainera, **Correos**, 2000. urtetik aurrera, bere **urrats ekologikoa murrizten** saiatu da, **Línea Verde** produktu jasagarriak salmentaratuz. Proiektu honi esker, Benalmádenako, Segoviako, Asturiaseko, Gran Canaria uharteko eta Zaragozako **hainbat lur deforestatu birlandatzea lortu da**, eta hori gure **enpresaren filosofiarekin guztiz bat** dator. Horrez gain, azken urteotan Correos bere flota berritzen ari da eta **erosten dituen garraio berri guztiak elektrikoak dira**.

